

Aitor Gametxoren 'Bere bizitzetako bat' film laburrak irabazi du Huhezinema 2016ko sail ofiziala

2016/03/22

Aitor Gametxok irabazi du Huhezinema 2016ko sari nagusia. Atzo, martxoak 18, Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean egindako proiektzio eta sari banaketa ekitaldian, gainera, banatu ziren, beste batzuen artean, Vertigo saria, Ikasleen saria eta Basque Culinary sariak. MONDRAGON UNIBERTSITATEko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako 4. mailako ikasleek antolatzen duten sariketa eta aurtengoa 9. edizioa izan da.

Irabazleak 2016

- Sail ofiziala, Goiena saria: **Bere bizitzetako bat (Aitor Gametxo)**.
- Sail ofiziala, Vertigo saria: **Dantzariak (Axier Salazar)**.
- Sail ofiziala, Ikusleen sariar: **Dantzariak (Axier Salazar)**.
- MUko ikasleen saila, dokumental onena: **Amaren izenean (Irati Elortondo)**.
- MUko ikasleen saila, Fikzio onena: **Zurea (Jon Garate eta Xabier Aztiria)**.
- MUko saila, Ikusleen saria: **Triangeluak (Ibai Iregi)**.
- Basque Culinary saria: **Menzzi Txispas (Ander Mendizabal eta Jon Garate)**.
- Basque Culinary saila, Ikusleen saria: **Nahikua eta soberan (Jon Campo)**.

Sari banaketa ekitaldiko kronika eta argazkiak.

Lehiaketakko webgune ofiziala: www.huhezinema.com



Huhezinema 2016ko irabazleak.